

# KOSTU EGITURA

Edozein proiektu aurrera eramateak zenbait gastu eragiten ditu, eta hauek finkoak, aldagarriak, eskala-ekonomiak edo hedapen-ekonomiak izan daitezke.

Gure enpresaren kasuan, hainbat kostu finko izango ditugu, urte osoan zehar zenbait gastu iraunkor izango baititugu, soldaten, uraren, energiaren eta alokairuen ordainketa, esate baterako.

Bestalde, kostu aldakorrak ere izango ditugu, ekoizten dugun kantitatearen arabera aldatuko direnak. Honen adibide dira lehengaiak.

Guk lehengaien produktueta deskontuak lortuko ditugu, lehengaien hornitzaileei produktuak kantitate handitan erosiz. Deskontu hauei rappel deritze. Gure kasuan, inguruko baserritarrek izango ditugun akordio eta negozioei esker, gastuak murriztuko ditugu.

Sukaldeak hainbat plater prestatzeko balio duenez, lehengai batek hainbat produktu sortzeko balioko du. Gure enpresan lehengai batetik produktu ugari eskaintzen ditugunez, honetan ere gure gastuak murriztea lortuko dugu. Prozedura honi hedapen-ekonomia deritzo.

